

entre la utopía y la esperanza

FRANTZISKO ASISTARRA

Paulo Agirrebaltzategi

Hace un año, dentro de la “Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarren V. Batzarrea/V. Asamblea de las Comunidades Cristianas Populares de Euskal Herria”, que se celebró en Arantzazu, tuve que hacer una exposición, por petición de los organizadores.

Me habían dicho que debía hablar sobre los signos de esperanza hoy en Euskal Herria; y en la conversación surgió también el tema de la utopía cristiana. Después, en el programa, mi exposición se titulaba “Signos actuales y utopía cristiana hoy en Euskal Herria”.

Yo había tratado de interpretar el deseo de los organizadores, y titulé mi exposición: “Bortxarik ezaren utopia gaur eta hemen Euskal Herrian/La utopía de la no-violencia hoy en Euskal Herria”. Tuve la impresión de haber cansado y defraudado un poco a los participantes.

Yo entonces enmarqué mi exposición en tres dimensiones de la figura de S. Francisco de Asís: Su respeto y amor de la naturaleza, su radical pobreza y solidaridad con los pobres, su mensaje de paz. Y hablé sobre la violencia, la contra-violencia y la no-violencia en Euskal Herria sobre cuatro ejes: Clase, Naturaleza, Pueblo, Hombre. Comencé hablando de la utopía y terminé hablando de la esperanza. Hoy, de nuevo, veo a Francisco de Asís en el medio.

Arantzazuko hitzaldia eman nuen irekiberria zen S. Frantziskoren jaiotzako zortzirehungarren urtearen ospaketa. Orain, urteurrena itxiberria dagoenean, ezin diot berriz ere haren utopia eta itxaropena gogoratzeko grianari eutsi.

Mendeurrenako oroimenak eta goralpenak bukatu dira; baina, aurrera begiratuz, santu Asistarrak gure artean duen gaurkotasuna eta etorkizuna eta bizigarritasuna ezagutu nahi dizkiogu, geure esperantza eta hartutako bidea berritu nahi ditugulako. Oinarriko Kristau Elkarte Herritarrentzat zinez esperantzazko mezua duela uste dut gaurregun Frantzisko Asistarrak. Horren urteurren ofiziala bukatu denean, Eliza herritarra bizi nahian dabilzan Kristau Elkarte herritarrek gidari bat aurkitua dutela uste dut Nazaret-eko Jesusen jarraibidean.

Berriz irakurtzen dut Joan Paulo II. ari horiek egin dioten gutun irekiko paragrafo bat: “Somos comunidades de cristianos que tratamos de vivir la fe en Jesús de Nazaret y construir una Iglesia popular, con la lucha de nuestro Pueblo trabajador vasco, que sea signo de nuestra esperanza en la liberación de todas las injusticias y opresiones”.



Nere ustez merezi du Frantzisko Asistarraren irudia eta eredia estudiantzea, hasitako bide horretan esperantzaren bila. Horren lau marra nagusi "marraztu" besterik ez dut egingo hemen.

"Goratua zaitetz, ene Jauna, zure sorkari guztiekin"

S. Frantziskoren idazkirik ezagunenatarikoaren titulua "Senide Eguzkiaren Eresia" da, ia itsuturik eta gaixorik zegoela asmatua. Bertan kantatzen ditu eguzkiaren, ilargiaren eta izarren ederra; haizearena eta oskarbiarena; urarena eta lurrarena.

SENIDE EGUZKIAREN ERESIA

Gorengo ahalguztidun Jaun onbera, zeureak dituzu gorespenak, aintza, ospea ta bedeinkapen dena; zuri bakarrik dagozkizu, gorengo horri, eta ez da inongo gizakirik zu aipatzeko dina.

Goratua zaitetz, ene Jauna, zure sorkari guztiekin, batez ere senide eguzkiarekin, bera bait da eguna eta bere bidez gaituzu argitzen; eta ederra da ta dirdai haundiz dizdiratsua; zurea, goi-goiko horrena, darama itxura.

Goratua zaitetz, ene Jauna, senide ilargi ta izarrengatik, zeruan argitsu, bitxi eta eder jarri dituzularik.

Goratua zaitetz, ene Jauna, senide haizeagatik, aide eta laino, oskarbi eta edozein girogatik, hauen bidez ematen baitiezu zeure sorkariei jan-edanetik.

Goratua zaitetz, ene Jauna, senide uragatik, txit onurakor, humil, bitxi ta garbi delarik.

Goratua zaitetz, ene Jauna, senide suagatik, bere bidez argitzen baituzu gaua, eta bera eder, alai, sendo ta indartsu da.

Goratua zaitetz, ene Jauna, gure senide ama-lurragatik, Berak mantentzen baigaitu ta bera dugu gidari, eta koloretako lore ta belarrekin fruitu asko dakarki.

Gora ta bedeinka ene Jauna, eskerrak eman eta apaltasun handiz serbi bera.

Nola ez gogoratu eresi hori kantatzean Gladys del Estal-en oroitarrian idatzita dagoena: "Asesinada en Tudela, por defender el sol, el agua y la libertad"?

S. Frantzisko, otoizlaria; gaurko ekologista, burrukalaria. Baina harek bere "burruka" eraman zuen, txorien, loreen, arrainen, zizare txikien alde. Eta burruka otoitz bihurtu zuen. Ekologistaren otoitza izan daiteke Senide Eguzkiaren Eresia.

Frantzisko Asistarra ekologista? Nudista, hobe! Nudismoak ez ote dio ekologismoari sustraitik eta errotik ora-

tzen? Eta Frantziskok bizitzari errotik heltzen zekien. Bilustu egin zen Asisko Apezpikuaren aurrean; eta bere aitaren oihal eta jantzi dotoreak baztertuz, tunika latz soilarekin "larrutsik" ibili zen munduan zehar, eta larrutsik hil nahi izan zuen lurraren gainean.

Ekologoek beren zaindaritzat aukeratu dute Frantzisko. Hau ez zen zientzilaria izan; baina bai izadiaren kantaria. Ekologoak zientzia bihurtzen du izadiarekiko harremana; ekologistak,

burruka; Frantziskok, otoitz. Ekologistarekin hurbilago dagoela uste dut Frantzisko Asistarra.

Jaunak bakea dizula!

Bere Testamentuan dio: "Diosala hau adierazi zidan Jaunak, esateko: Jaunak bakea dizula". Eta ezaguna da haren jarraitzaileek zabaldu dutena: "Bake eta Zori on!".

Nahiz eta ez izan benetan Frantziskorena, honi egotzi izan zaio "Bakearen aldeko otoitza", ezaguna, kristau bakezaleek hainbat bider errepikatua.

Bakearen aldeko otoitza

Zure Bakearen tresna izan nahi dut,
Jauna, nik.

Gorrotoa dagoen lekuan, maitasuna
ipini dezadala nik,
bidegabea dagoen lekuan, barkamena
ipini dezadala nik.

Liskarra dagoen lekuan, batasuna ipini
dezadala nik,
okerra dagoen lekuan, egia ipini deza-
dala nik.

Zalantza dagoen lekuan, fedea ipini
dezadala nik,
etsipena dagoen lekuan, itxaropena
ipini dezadala nik.

Ilunbea dagoen lekuan, argia ipini
dezadala nik,
nahigabea dagoen lekuan, alaitasuna
ipini dezadala nik

Nork ez du ikusi Gubbio-ko otso izugarriaren, Frantzisko Asistarraren aurrean apaldurik dagoenaren irudia? Horixe da Santu bakezale eta bakegilearen irudi bizia ere. Baina poemak eta fabulak aparte, gutxiagok daki, S. Frantziskok debekatu egin ziela bere jarraitzaile laikoei armetan ibiltzea eta armak hartzea ere. Gaurko kontzientziagatik eragozleek eta pazifistek da dute babeslerik, zeruan behintzat.

Gerai haietako Eliza gerrariaren barnean bertan bortxarik ezaren kanpaina eraman zuen Frantziskok. Ezaguna da, nola, Elizak Mahomatarren kontrako gurutzadak antolatzen eta egiten zituen bitartean, bere Egiptoko Sultanaren aurrera bakearen mezua eta Ebanjelioaren Berriona eskaintzera joan zen. Gurutzaden aurkako protesta zirudien gehiago, fedegabea federa ekarri nahia baino.

Pazifismoa eta antimilitarismoa baino areagokoa zen S. Frantziskoren jarriera: bortxarik ezarena. Benetan Gandhi-ren aintziandaria izan zela esan daiteke, haren izpirituari dagokionez behintzat. Frantziskoren bortxarik ezaren sustriak, izan ere, bizidun guztienganako —landare, animalia nahiz gizakien ganako— begirune sakonean eta maitasun bizian errotzen ziren.

Anaia Txikerrak

Hitz hauekin hasten da S. Frantziskoren bigarren Erregela: "Fraide Txikerraren Erregela eta Bizitza honela da, alegia: Jesukristo gure Jaunaren Ebanje-

lio santua gordetzea...". Eta lehenengo Erregelaren seigarren kapituluan honela esaten die fraideei: "Eta inork ez beza nagusi izenik har; baizik eta anaia txikerrak izan bedi orenen deitura arrunta. Eta oinak garbi biezaizkio bata besteari".



Aitasantu Inozentzio III.aren garaian bizi izan zen Frantzisko. Elizaren historia aput bat dakienak, ezaguna du Aitasantu honen garaia izan zela hain zuzen Elizaren botere tenporalaren gailurra eta Eliza instituzionalaren apogeo. Hortxe sortu zituen Asisko santuak bere oinarriko anaiarte txikiak, Ebanjelioaren askatasunaren beharrea, orduko monastegi ondo segurtatuetako bizikera alde batera utziz.

Hunkigarria da benetan Frantzisko gazteak, bere anaiartearen askatasuna eta bizikeraren espontaneotasuna defendatzearen, Asisko apezpikuarekin izan zuen tirabira luzea, bai eta gero Erromako kardinaleekin ere. Eliz instituzioak bere kontrolpean zuzendu nahi zuen mugimendu berria —oinarrikoa eta herri-tarra—, eta horregatik ondo legezaturiko eta ordenaturiko monastegietara bultzatu nahi zituzten fraide berriak. S.

Frantziskok obedienciazaren sena bizia zuen eta Eliz agintarienganako begirune sakona ere bai. Horregatik ez die aurrez aurre kontrakoa egiten. Obeditu egiten du; baina aldi berean askatasunari bide berriak; Eliz instituzioen eta agintarien eskemetan eta kontrolpean sartzen ez direnak, irekitzen dizkio. Horixe da obediencia sortzaile edo kreatiboaren handia: agintearen eta instituzioaren kontra joan gabe ere, horiek ustekabean arrapatzea, eta irudimenaren eta sormenaren eraginez askatasunaren zelaia zabaltzea.

Erresistentzia edo jarkiera, zibila nahiz elizabarrukoa, antzua da, irudimenak eta sormenak, ezarritako eske-mak gaintzera eramaten ez badu.

Hil arte eraman behar izan zuen Frantziskok bere jarkiera eta burruka, bere oinarriko anaiarte txiki eta xumeen mugimendua, Eliz instituzioaren barruan zorrozki kontrolaturiko eta lege-peturiko Ordena handia bihurtu nahi ziotelako. Bere obedienciazipeko azken erresistentzia paradajikoa eta askatasunaren oihua bere Testamentuan utzi zuen.

Elizaren aparatuak lortu zuen, bai, oinarriko elkarten mugimendu berria neurri batez irenstea; hala ere, sinestuta nago, Frantzisko Asistarrak dinamismo berri bat jarri zuela kristauen artean, senidearteko Eliza herri-tarraren sua behin eta berriro piztuko duena, eta fede-experientzia elkarte bizitzeko grina suspertuko duena.

Oso interesgarria litzateke S. Frantziskoren jokabidea aztertzea, gure kristau elkarte herri-tarren eta Eliza instituzionalaren arteko tirabirak argitzeko ere.

Agur, Andre Pobretasun santua!

S. Frantziskok goituzen bat du, tradizioak betirako itsatsi diona: "Asisko Pobrettoa - Poverello d'Assisi".

Harentzat pobretasuna ez zen etsipenez onarturiko egoera; ez eta beretzat eta bere jarraitzaileentzat erabakitako biziera bakarrik ere. Amets eta helburu bat da bere bizitzarako, maitasunez bilatzekoa, alaitasunez zabaltzekoa eta poesiaz kantatzekoa. Bere bihotzeko andregai eta dama bihurtu zuen pobretasuna: "Agur, andre Pobretasun santua, Jaunak gorde zaitzala zure senide humiltasun santuarekin", "Birtuteei agurra" deritzan idazkian kantatzen duen bezala.

Alderdi hau izan da ezaugarriena eta ezagutuena S. Frantziskoren bizitzan: bere pobretasun-biziera aszetikatik mistikara ekarri izana. Baina besterik

da horren inguruan muntatu izan den mistizismoa, Frantzisko Asistarrarengandik urruti zegoena.

Haren pobretasun-aukera **profetiko** bait zen, **mistikoa** izateaz gain: hau da, elkartasun-bidea eta askatasun-bidea. Bi aipamen soil bakarrik:

"Bizikera hau (fraideena) hartzera zetozenek, izan zezaketen gauza oro, pobreei partitu ohi zieten" (Testamentua).

"Pobretasun santuak, gizaldi honen diru-gose eta zekenkeria eta ardurak lotsarazten ditu" (Birtuteei Agurra).

Botere ekonomikoa, ideologikoa, politikoa eta militarra bereganatu dituen klase ondasundunaren aurrean, pobreek eta boteregabeek beren arteko solidaritetasuna eta elkartasuna dute beren indarra: bizi-indarra eta burruka-indarra.

Aukera egin zuen Frantziskok: Pobreen eta zapalduen Klasearena.

S. Frantziskok dioen "gizaldia" gure mundu kapitalista eta desarroilista besterik ez da: "diru-goseak eta zekenkeriak" arrapatua, eta garapen ekonomiko eta teknikoaren izenean, izadia gizadiaren presondegi bihurtzera doana. Indar bat da, orduan, pobretasuna, izadiaren jatorritasuna eta gizakiaren askatasuna defenditzen dituen.

Bi filosofia daude, elkarren kontra-koak: garateria edo desarroilismoarena eta pobretasunarena. Langileriak ez dauka kapitalismoaren filosofiarekin burrukatzerik.

Arantzazuko Batzarre hartan aurkeztu zen "Euskal Herriko Kristau Elkarte Herri-tarren nor-izana" izeneko liburuxkan zera irakurtzen dut orain, 1.4.— puntuan: "Ez gara orain hasten, ez gaude bakarrik ere. Beti izan dira, bai gaur ere, 'herri-tar' Elizaren ildotik konprometituriko talde eta jenderik, ekinaren ekinez frogatzen askatzailea dela fedea eta ez 'herri-tarren lobelarra'".

Nere ustez horrek esan gura duena da, Kristau Elkarte Herri-tarrek ba dutela, horiek ere, beren tradizioa Elizan. Ez dago ibili beharrik, oraintxe eta hemen dena asmatu behar balitz bezala. Asmamen eta sormena ez daude oroi-menaren kontra.

Eliza ofizialaren lurrazpian bezala datorren Eliza Herri-tarraren historia berreskuperatu beharra dugula uste dut. Besteren artean, "gure" santuak berreskuratu beharra daukagu, beste inork monopoliza ez ditzan.